

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARKAUTIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### Hilerriaren ordenantza behin betiko onestea

Kontzeju honek, 2021eko ekainaren 21eko bilkuran, hasierako onespena eman zion hilerriaren ordenantza onesteko espedienteari. Espediente hori jendaurrean egon zen bitartean ez zenez erreklamaziorik aurkeztu, behin betiko onesten da. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, osorik argitaratzen da indarrean sar dadin.

#### I. titulua Xedapen orokorrak

##### 1. artikulua

Kontzejua da Arkautiko hilerriaren jabe bakarra, eta berari dagokio hilerriaren zuzendaritza, administrazioa, kudeaketa, arauketa eta kontserbazioa, jabari eta zerbitzu publikoko ondasuna baita; hori guztia, ordenantza honetan adierazitakoari jarraituz, beste agintari edo erakunde batzuen berezko eskumenak direnetan izan ezik.

##### 2. artikulua

Arkautiko Kontzejuaren zereginak dira hauek:

- Hilerriaren antolaketa, kontserbazioa eta egokitzapena.
- Hilobien erregistroa egitea orrialdeak zenbakituta dituen liburu zigilatu batean. Administrazio batzarrak hilobiratu eta hilobietatik atera diren gorpuak idatziko ditu bertan.
- Hilerriaren barne araubidea.
- Partikularrei baimena ematea hilerrian edozein motatako obrak edo instalazioak egiteko, bai eta haiek ikuskatzea ere, udal lizentzia eskatu behar den edo ez alde batera utzita.
- Hilobien lagapenak onartzea eta edozein motatako ehorzketa eskubideak aitortzea.
- Ordenantza honetan ezartzen diren eskubide eta tasak jasotzea.
- Osasun eta higiene neurriak betetzea.
- Hilerriaren jabea eta erakunde publikoa den aldetik, bere gain hartu behar dituen bestelako zereginak.

##### 3. artikulua

Erabiltzaileei dagokie:

- Hilerrian ehorzketa duina egiteko eskubidea, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, pentsaera edo beste edozein arrazoi edo egoera pertsonal edo sozial baten ondoriozko bereizkeriarik egin gabe.
- Horma hilobiak eta kolunbarioak egoera egokian mantentzea, estetikari eta apaindura publikoari dagokienez, lagapen hartzailea den bitartean.
- Ordenantza honetan ezartzen diren zerbitzuak jasotzeagatik eskubideak edo tasak ordaintzea.

— Errespetatzea eta betetzea Arkautiko Kontzejuak bere eskumenak erabiliz ematen dituen xedapen guztiak, bai eta beste administrazio edo erakunde eskudunen batek hilotzen osasun zaintzari buruz ematen dituenak ere.

#### **4. artikulua**

Ez zaie sartzen utziko, edozein arrazoiengatik, hilerriko lasaitasuna eta ordena nahas ditzaketen pertsoneri edo pertsona taldeei. Debekatuta dago giza duintasuna eta pentsamendu, kontzientzia, erlijio edo konbikzio askatasuna urratzen duten esaldiak edo hitzak ahoskatzea.

Berariaz debekatzen da animaliak egotea, salbu eta ikusmen desgaitasuna duten pertsoneri laguntzen dieten txakur gidariak, baita jatea edo edatea eta edozein salmenta mota egitea ere. Hilerria beti egon beharko da oso garbi, eta hilerriaren estetika inguruari egokituko zaio.

### **II. titulua**

#### **Kudeaketa, administrazioa eta kontserbazioa**

#### **5. artikulua**

Hilerriak honako instalazio hauek dauzka:

Partikularrei lagatako horma hilobiak.

Errauts ontziak eta hezur hondakinak gordetzeko horma hilobiak (hemendik aurrera kolunbarioak deituko diegu), partikularrei lagatakoak.

Zona komunak.

#### **6. artikulua**

Hilerriaren kudeaketan helburu hauek sartzen dira:

— Hilerria administratzea eta haren ordena zaintzea eta garbitzea eta araudia betetzea.

— Gorpu edota gorpuzkien ehorzketak eta hilobietatik ateratzeak ikuskatzea; baita hilotzen osasun arloan indarrean dagoen legeriak behartutako beste edozein jarduera ere.

— Hilerriaren elementu, eraikin eta instalazio komunak zaindu eta garbitzeko lan eta zerbitzuak egitea, bai eta elementu horien funtzionamendua ere.

#### **7. artikulua**

Hala horma hilobiak nola kolunbarioak giza gorpuak eta gorpuzkiak zuzenean ehorztekotz izango dira bakarrik.

#### **8. artikulua**

Arkautiko Kontzejuak hilerriaren esparruan ordenari eutsiaraziko dio, eta bertako eginkizunek eskatzen duten begirunea exijituko du.

Kontzejuak hilerriaren zaintza orokorra egingo du; hala ere, ez du bere gain hartuko instalazioetan, horma hilobietan, kolunbarioetan eta hilerrian jar daitezkeen gauzetan hirugarren batzuek egin ditzaketen lapurreta eta hondaketen gaineko erantzukizuna.

#### **9. artikulua**

Ehorzlekuak garbitzeko, mantentzeko eta apaintzeko lanak partikularrei dagozkie.

Lan horiek instalazioak errespetatuz egingo dira; jardunak amaitutakoan, bai ehorzlekua bai ingurua aurretik zeuden moduan utzi beharko dira, eta sortutako hondakinak, gaiak eta erabilitako lanabesak kendu egin beharko dira handik.

Partikularren batek bere ehorzlekua behar bezala zaintzen ez badu eta hondatuta baldin badago, eragindako eskubidearen titularrari egoera hori zuzentzeko eskatuko dio kontzejuak, eta, lanak ematen zaion epean gauzatzen ez baditu, kontzejuak egin ahal izango ditu era subsidiarioan, partikularren kontura.

**10. artikulua**

Arkautiko Kontzejuari dagokio hilerrian beharrezkoak diren lan materialak egitea, hala nola, mantentze eta garbitze lanak, eta hura arduratuko da lanok antolatu eta ikuskatzeaz.

**11. artikulua**

Jartzen diren plakak eta hilobi ikurrak emakidadunarenak dira, eta haren kontura konpondu eta zainduko dira. Emakidaduna beharturik dago, tokiak merezi duen begirunez, horiek zaintzera.

Jarritako elementuak eta idatzitako inskripzioak gainbegiratu egingo dira. Guztiz debekatuta dago tokiaren edo pentsamendu, kontzientzia, erlijio edo konbikzio askatasunaren aurkako edozein adierazpide edo irain egitea.

**12. artikulua**

Arkautiko Kontzejuak, dagozkion helburuak betetzeko, administrazio eginkizun eta eginkizun teknikoak gauzatzeko ahalmena izango du eta bereziki jarraian zehazten diren hauek oso-osorik betetzeko:

– Edozein motatako ehorzketa eskubideen lagapen, aitorpen eta aldaketari buruzko espedienteak bideratu eta ebaztea, bai eta horien onuradunak izendatzea, eta eskubide horiei dagozkien tituluen izapideak egin eta tituluak ematea ere.

– Gorpu eta gorpuzkiak ehortzi, hilobietatik atera, tokiz aldatu, erraustu eta deuseztatzeko baimena ematea. Arkautiko Kontzejuaren baimen horrek ez du kentzen gorpuzkiak hilobiratu eta lekualdatzeko beharrezkoa den osasun arloko baimena eskuratu beharra, hala dagokionean.

– Arkautiko hilerriaren kudeaketari dagozkion helburuekin bat datorren beste edozein eginkizun, hala adostu eta gero.

**13. artikulua**

Arkautiko Kontzejuaren horma hilobi eta kolunbario guztiak aldi baterako lagapenak izango dira, 75 urterako. Epe hori sine die luzatu ahal izango da beti ere, gutxienez, 2 horma hilobi eta 2 kolunbario libre badago. Gorpuak hilobietatik ateratzea Arkautiko Kontzejuaren ardura izango da.

Kontzejuarenak diren horma hilobietan eta kolunbarioetan egoteko denbora ehorzketa egunetik hasiko da kontatzen.

30 urteko epea igarotakoan, 2 horma hilobi eta 2 kolunbario libre egon gabe, Arkautiko Kontzejuak, gai organikoa suntsitzeko fenomenoak amaitu eta gero, gorpuzkiak hilobitik atera ahal izango ditu. Oinordekoei horren berri eman beharko die gutxienez ere 3 hilabete lehenago, haiek non dauden erraz jakiteko modurik izanez gero. Oinordekoek nora eraman adierazi ezean, gorpuzkiak erraustu egingo dira, berreskuratzeke markarik edo identifikaziorik gabe.

Partikularrei lagatako kolunbarioak 2018an eraiki ziren, eta haien erabilerari dagokionez, kontzejuak 2021eko ekainaren 21ean hartutako erabakiaren arabera, partikular horiek eta haien legezko oinordekoek 75 urtez erabil ditzakete, gehienez ere. Epe hori igarotakoan, Arkautiko Kontzejuak kudeatuko ditu kolunbario horiek.

Kolunbarioak zozketaz esleituko dira eta zenbaki bana jarriko zaie behetik gora eta ezkerretik eskuinera.

**III. titulua****Hileta eskubideak****14. artikulua**

Arkautiko Kontzejuak aitortu eta emango ditu ehorzketa eskubideak, ordenantza honetan eta toki araubideko araudian xedatutakoaren arabera.

Ehorzketa eskubideak berekin dakar bakar-bakarrik hilerriko horma hilobiak eta kolunbarioak aldi baterako erabili ahal izatea, haien titulartasun izenduna Arkautiko Kontzejuari bakarrik baitagokio, bat etorritik ordenantza honetan ezarritakoarekin.

**15. artikulua**

Arkautiko Kontzejuak ehorzketa eskubideak aitortu eta emango dizkie hiltzeko unean honako talde hauetakoren batean dauden pertsonen:

- Herriko biztanle guztiei, gutxienez ere 2 urte lehenagotik bertan erroldatuta badaude.
- Lehen mailako ahaidetasuna duten senideei; atal honetan sartzen dira izatezko bikote-kideak.
- Herriko biztanle izan eta bertan bizi izan direnei, nahiz eta bizilekua aldatu osasun, familia edo gizarte arrazoiek direla eta. Atal honetan sartzen dira herritar horiek ondorengoak.
- Aurreko puntuetan sartuta egon ez arren, eskubide hori eskatzen dutenei, batzarrak kontzeju irekian aztertu eta onetsi ondoren.

**16. artikulua**

Aurreikuspen aseguru etxeak edo antzekoak ezin izango dira izan hileta eskubideen titularrak. Beraz, Arkautiko Kontzejuaren aurrean ez dute ondoriorik izango ituntzen dituzten polizen edo kontratuen klausulek, baldin eta asegurudunei hileta eskubidea ordaintzeko beharrezko kapitala emateko eskubideaz gainera beste eskubideren bat estali nahi badute.

**17. artikulua**

Ehorzketa eskubidea emateko eta hobeto identifikatzeko, hilerriko horma hobiak eta kolunbarioak dagokion planoan adieraziko dira.

**18. artikulua**

Honako kasu hauetan hileta eskubidea iraungitza joko da, eta Arkautiko Kontzejuaren eskuetara bihurtuko da:

- Aldi baterako lagapen epea, 30 urtekoa, amaitzen denean, beti ere gutxienez 2 horma hilobi eta 2 kolunbario libre ez badaude.
- Edonola ere, legeak finkatzen duten aldi baterako emakida epea igarotzen denean.
- Horma hilobiak edo kolunbarioak zaindu ez eta aurri bihurtuta daudenean. Eskubidea iraungitza jo aurretik txosten teknikoa egingo da eta konpontzeko edo egokitzeko emandako epeak ez direla bete egiaztatuko da.
- Hileta eskubidea ordenantza honetan xedatutakoaren aurka erabiltzen bada.
- Interesdunei tasak ordaintzeko eskatu ondoren, dagozkionak ordaintzen ez baditu.
- Titularrak berariaz uko egiteagatik.
- Ehorzte eskubidearen epea amaitutzat jotzeak ezarritako lagapena iraungitzea ekarriko du, eta ez da egongo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik.

**19. artikulua**

Hileta unitateak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasak ordenantza honen I. eranskinean jasota daude. Tasa horien eguneratzeak edo bestelako aldaketak ordenantzaz apartekoak izango dira, hau da, ez diete gainerako artikuluei eragingo.

**Xedapen gehigarria**

Araudi horren aurretik, herri horretako hilerrian hainbat partikularri lagapenak egin zitzaizkien hilerri horretako horma hilobiak erabiltzeko, betiko, 1995eko irailaren 17ko administrazio batzarraren aktan, 81. orrialdean, eta, bertan, haiek azkentzeko arrazoiek eta epeak ezarri ziren. Arau horrek emakida horiek errespetatuko ditu, harik eta azkentzen diren arte. Onespen unean bi horma hilobi libre ez daudenez, 3 kolunbario libre utziko dira ehorzketa eskubiderik esleitu gabe, harik eta etorkizunean aipatutako bi horma hilobiak eduki arte.

Ordenantza honetan aurreikusi ez den guztirako, honakoak beteko dira: uztailaren 20ko 2263/1974 Dekretua, hilotzen osasun zaintzaren arautegia onesten duena; ekainaren 26ko 8/1997 Legea, Euskadiko antolamendu sanitarioarena; urriaren 19ko 202/2004 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko hilotzen sanitate alderdiei buruzko arautegia onesten duena; eta indarrean dauden gainerako arauak.

Arkautiko Administrazio Batzarrak interpretatuko du ordenantza hau, beharrezkoa den kasuetan. Erabakiaren garrantziagatik, zailtasunagatik edo adostasun ezagatik egoki jotzen denean, erabakia kontzejuak hartuko du.

#### Azken xedapena

Ordenantza hau ALHAOn oso-osorik argitaratu ondorengo hogeita hamargarren egun baliodunearan jarriko da indarrean, behin betiko onetsi ondoren.

Arkauti, 2021eko irailaren 21a

*Lehendakaria*

*BLANCA MONTIEL IÑIGUEZ DE HEREDIA*

### 1. eranskina

#### Tasak

Horma hilobi eta kolunbarioen aldi baterako lagapenaren tasak ezartzen dira, lagapena indarrean den aldi osorako.

—Egitura komunak mantentzearen eta garbitzearen tasa eta jabe guztientzat komunak diren beste kontsiderazio batzuk: 20 euro urtean. Urtero berrikusiko da ezusteko gastuak sortzen badira.